



Espaniako audientzia nazionalak epaitu dituen Askapenako kideek, Europako herrialde ezberdinak bisitatuko dituzte hurrengo bi asteetan. Atzo ostiralean Andaluziara heldu ziren Walter Wendelin eta Gabi Basañez. Beste alde batetik Irlandara, Kataluniara, Flandriara... joango dira. Bira honetan epaiketaren berri emateaz aparte, jaso dituzten elkartasun keinuak, epaiketa salatzeko egin diren ekimenak... azalduko dituzte.

Prensa oharra:

Espaniar Entzutegi Nazionalak Askapenaren kontrako auzian epaituriko Walter Wendelin, Dabid Soto, Aritz Ganboa, Unai Vázquez eta Gabi Basañez Eropan zehar ibiliko dira hurrengo bi asteetan, motxila laranja bete elkartasun eta agenda bete lan.

Gaur helduko dira Andaluziara Walter Wendelin eta Gabi Basañez; Málaga eta Granadan hainbat eragilerekin bildu ondoren, igandean Marinaleda herrian elkartasun-ebazpena egingo da eta bertan izango dira. Andaluziako bira bukatu, Irlandara joango dira, eta ondoren Bruselasera (Europako Legebiltzarrean hartuko dituzte), eta Flandria eta Catalunya ere joango dira (eta hango Legebiltzarretan ere hartuko dituzte).

Epaituek espaniar Entzutegi Nazionalean eginiko auziaren gorabeheren berri ematez gain, motxilan orain arte bildutako elkartasuna erakutsiko dute, are gehiago ere jaso asmoz: Euskal Herrian eta nazioartean Askapena eta auzipetuen alde eta espaniar estatuaren kontra eginiko 40 herri epaiketak, zapi palestinar laranja eta zapatak, hainbat herritan eta Nafarroako Legebiltzarrean onarturiko elkartasun ebazpenak...

Abenduaren 4, Ostirala